



Esp. kodea: 2025PHLF0001

Gaia: Euskaltegiko irakasle bi, oposizio-lehiaketa

AURRETIAZKO INFORMAZIOA

LEHENENGO PROBA: AZTERKETA TEORIKOA GAITEGI OROKORRA

- Data: **2026ko otsailaren 20an**
- Ordua: **10:00**
- Lekua: **Kulturate eraikina** (Azoka kalea 1), [ate nagusitik sartu](#)
 - Gela: Jokin Zaitegi gela
- Azterketa gunea **09:45tan irekiko** da.
- Kontroletik pasatu aurretik komunera joan ahal izango da. Azterketa eremuan sartu ondoren, ezingo da ezertarako irten azterketa amaitu arte.
- Ezin izango da irten azterketa hasten denetik gutxienez 20 minutu pasatu arte.
- Azterketa gunearen barruan, zaintzaileek esandakoari jarraituko zaio beti.

JARRAIBIDEAK

Irakurri arretaz jarraibide hauek. Oso garrantzitsuak dira azterketa nola egin jakiteko. Azterketa egiteko moduari buruzko zalantzarik edo zailtasunik baduzu, galdetu zaintzaileei azterketa hasi aurretik.

EZ IDATZI EZER AGINDUA EMAN ARTE.

- Mahaiaren gainean ondoko materiala aurkituko duzu:
 - jarraibideen bi orri (euskaraz eta gaztelaniaz)
 - kartazal handia
 - kartazal txikia
 - identifikazio txartela
 - erantzun orria.
- Zerbait falta bada, eskua altxa eta eskatu zaintzaileei.
- Azterketa egin bitartean, zure **NANa** mahai gainean utzi behar duzu, ikusteko moduan. Azterketan zehar, eman zaizun materiala, azterketan bertan banatu zaizuna, NANa eta **boligrafoa (beltza edo urdina)** baino ezingo dituzu eduki mahai gainean.
 - Telefono mugikorrak eta bestelako gailu elektronikoak itzalita eduki behar dira (ez isilik, ez hegaldi moduan).
 - Ezin da eraman erloju adimendurik.
 - Hautaketa prozesutik kanpo geldituko dira ariketak irauten duen bitartean erabiltzeko moduan dagoen sakelako telefonoren bat edo beste edozein gailu elektroniko daramatzaten hautagaiak,

Kodea	AG26/00881	Udala	Arrasate/Mondragón
CUDO	000.0055.AAA1EKHR.8.aUsd		
URL	https://udal.egoitza.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/55/AAA1EKHR8.aUsd		
Dokumentu hau elektronikoki sinatu da. Honen balioa egiaztatzeko, sartu zaitez webgunean edo irakurri ezazu QR irudia.			







Esp. kodea: 2025PHLF0001

Gaia: Euskaltegiko irakasle bi, oposizio-lehiaketa

Internetarako edo beste gailu batzuetarako konexioa duten gailu elektronikoak.

- Ezin izango da belarritako tapoirik erabili.
 - Isiltasunak erabatekoa izan behar du azterketa gunean zauden denbora oro. Besteentzat desegokia edo gogaikarria den edozein jokabidek esparrutik kanporatzea ekarriko du.
1. **Ez idatzi ezer kartazaletan.** Kartazal handian zein txikian egindako edozein identifikazio ikurrek automatikoki ekarriko dute ariketa baliogabetzea.
 2. Idatzi, agindua ematen zaizunean, izena, bi abizenak eta NA zenbakia identifikazio txartelean, **beste inon ez**. Idatzi data eta probaren izena.
 3. Sartu identifikazio txartela kartazal txikian, berau itxi eta kartazal handian sartu. Ez itxi kartazal handia azterketaren amaieran erantzun orria sartu arte.
 4. Galdera bakoitzak lau erantzun aukera ditu: A, B, C eta D, eta erantzun zuzen bakarra. Galdera eta dagozkion lau erantzunak irakurri ondoren, erantzun zuzena adierazi behar duzu erantzun orrian.
 5. Erantzuna adierazteko goiko lerroan aukerari dagokion laukitxoa belztu. Zuzenketarik egin nahi baduzu, baliogabetu nahi duzun erantzuna eta beheko lerroan belztu erantzun berria. Epaimahaiaren arabera zalantzazkoa bada zein erantzun aukeratu den, galdera hori erantzun gabekotzat joko da. Erantzun orriaren atzealdean horren adibidea dago.
 6. Egingo duzun azterketak **65 galdera** ditu. Erreserbako 5 galderak aurreko 60 galderetako bat baliogabetzen denean bakarrik hartuko dira kontuan. Hala ere, **65 galderei erantzuten saiatu behar duzu**.
 7. Azterketa egiteko **90 minutu** izango dituzu.
 8. Erantzun okerrekin eta erantzun gabeko galderekin ez dute penalizaziorik izango.
 9. **Ariketa amaitzen duzunean**, sartu erantzun orria kartazal handian; altxa eskua eta itxaron zainzailea hurbildu arte. Gogoratu ezin dela identifikaziorik edo markarik agertu kartazaletan edo/eta erantzun orrian. Azterketa entregatu ondoren, irten ahal izango zara.
 10. **Bertaratze agiriak** azterketa amaitzean emango dira.
 11. Azterketa eta erantzun orriaren kalkoa eraman dezakezu zurekin, azterketa amaitzean.
 12. Erantzun zuzenen txantiloia azterketa egunean edo biharamunean argitaratuko da.

ESKERRIK ASKO ZURE LAGUNTZAGATIK

Kodea	AG26/00881	Udala	Arrasate/Mondragón
CUDO	000.0055.AAA1EKHR.8.aUsd		
URL	https://udal.egoitza.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/55/AAA1EKHR8.aUsd		
Dokumentu hau elektronikoki sinatu da. Honen balioa egiaztatzeko, sartu zaitez webgunean edo irakurri ezazu QR irudia.			



